



# 2008-2015 Tolosako Plan Orokorra aurkeztu du Udalak

**EGITURA** ▶ Lanak hirigintza, ingurugiro, industria, komunikazio,... ezaugarriak biltzen ditu

**XEDEA** ▶ «Etorkizuna hirigintza ikuspuntutik ordenatzea» dela dio Agirre arkitektoak. ▶ 3



Imanol Agirre Udaleko arkitektoa, atzo planari buruzko azalpenak ematen. ESTI EZEIZA

**MARIANO LAZKANO** ▶ BELAUNTZAKO ALKATEA

«Giroa nahiko lasaia ikusten dugu herrikoak garenon artean»

«Herriko ura eta etxebizitza» jarri ditu herriko lehentasunen artean ▶ 6



A. IMAZ

N. GARZIA



## Lau erraldoi berri egiten ari dira festetarako

**LEITZA** ▶ Tailerrean ari dira lanean herriko lau gaztetxo; ondoren eurekin dantzatzen ikasiko dute, festetan emanaldia egiteko ▶ 7

**TOLOSALDEA** ▶

## Eusko Jaurlaritzak lau telebista digitalen lizentziak banatu ditu. ▶ 2

## 11. GARAGARDO AZOKA Uztailaren 19tik 22ra



Ordutegia: 18:00etatik 1:00etara

VILLABONA

## TXIRRINDULARITZA ▶



Belca taldeko txirrindulariak Ezkion, sari banaketaren unean. JUAN MARI TOLIN

## Emaitza «bikainak» lortuz jarraitzen du Belca taldeak

Larunbatean, Alegian, kadeteetan bigarren postua lortu zuten; Ezkion, junior mailakoan, garaipena eta taldekakoa



Aitor Ocampos Ezkioko helmugan, larunbatean. JUAN MARI TOLIN

## ERREDAKZIOA

Azken boladan Belca Txirrindulari taldea garaipen ugari ari da lortzen, eta pasa den asteburuan ere horrela izan da. Larunbata goizean Alegian hartu zuten parte Tolosaldeko txirrindulariek Languarek antolatutako kadete mailako lasterketan. 122 txirrindularik hartu zuten parte 63 kilometroko ibilbidean, eta sprint hestu baten ondoren, Oier Iraolagoitia (Galdiano) izan zen lehena helmugan, eta bere atzetik igaro zen Belca taldeko Mikel Eguren.

Larunbat arratsaldean, bestalde, beste proba batean hartu zuten parte Tolosaldeko taldeak, Ezkion, hain zuten ere, Anduaga elkarteak antolatutako Santa Lutzia Sarian. Junior mailako proba hau 80 kilometrokoa zen, eta beroa izan zuten txirrindulariek oztopo nagusietakoa. Parte-hartzaileek Izagako gaina igo zuten bariantetik, ondoren, 9 kilometroko Atagoiti mendatea gainditu zuten, eta amaizteko Gabiriako gainetik Ormaiztegiara egin zuten. Helmugara lehena heltzen Belca taldeko Aitor Ocampos izan zen 2 ordu, 6 minutu eta 54 segundoko denborarekin, bigarrenari Diprocako Julen Mitxelena 51 segundo ateraz. 5. ta 6. postuan, Belcako Jon Gorostidi eta Ander Zubillaga iritsi ziren. Hala, emaitza horien gatik Belcak taldekakoa saria ere lortu zuen.

## KOMUNIKABIDEAK ▶

## Eusko Jaurlaritzak banatu ditu telebista digitalen lizentziak

Tolosako Komunikabideak SLk, Gipuzkoa TV SAk, Zabalik 2000 SLk eta Grupo de Medios Audiovisuales de Gip. SLk jaso dute gurean



Denera lau lizentzia banatu dituzte eskualdean. HITZA

## ERREDAKZIOA

Erabaki du dagoeneko Eusko Jaurlaritzak telebista digitalen lizentziak nori eman. Tolosaldean lau lizentzia banatu dituzte, beraz, lehiaketara eskaera egin zuten laurei eman diete. Hain zuten ere, Tolosako Komunikabideak SL (28 Kanala, Hamaika komunikazio taldea), Gipuzkoa Television SA (Localia), Zabalik 2000 SL (Vocento) eta Grupo de Medios Audiovisuales de Gipuzkoa SL (Local Media) dira lizentziak jaso dituztenak.

Tolosaldean lau lizentzia eskaera egin ziren eta horietatik laurak onartu ditu Eusko Jaurlaritzak. Barruti bakoitzeko gehienez lau telebista kate esleitu zitezkeen eta Tolosaldean laurak ematea erabaki dute.

Eusko Jaurlaritzak herenean eman zuten erabakiaren berri. Jaurlaritzak, Kultura sailburuaren proposameneren harira, lurreko uhinen bi-

dezko tokiko telebistaren zerbitzu publikoa kudeatzeko 57 kontzesio onartu ditu, EAEn planifikatutako 15 barrutietan.

Uhinen bidezko tokiko telebista-zerbitzuko lehiaketa 2006ko abenduaren 12an zabaldu zen eta 2007ko martxoaren 23an itxi zen eskaintzak aurkezteko epea, kontuan izanda aurkeztutako eskaintzen kopurua, joan den ekainaren 26ko Gobernu Batzordeak prozedura gehienez hiru hilabetez luzatzea erabaki zuen, epealdi hori agortu gabe, eta herenegun eman zuten erabakia jakitera.

Kontratazio Mahaiaik hogeita hamazazpi enpresak aurkezturiko laurogeita bederati proposamen jaso eta aztertu ondoren, horietatik hogeita hamahiru enpresa eskatzaileen laurogeita bat proposamen onartu zituen lehiaketako baldintzak betetzen zizutelako, jakitera eman zuten Eusko Jaurlaritzatik.

### BERRIaren edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile bat behar da.

Erreferentzia: 2007 EH-DP.

**Ezagarri hauek izan behar ditu:**

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin esperientzia izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izan behar du.
- Photoshop eta Flash programak ezagutu behar ditu.

**Eskaintzen da:**

- Hiru hilabeteko kontratua (luzagarria).
- Lanean berehala hastea (abuztuan).

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, uztailaren 20a baino lehen.

## HEZKUNTZA ▶

### Helduen hezkuntzan izen-ematea

Tolosako eta Villabonako Helduen Hezkuntzak aurkeztu du hurrengo ikasturteko eskaintza. Izen-ematea irailaren 3tik aurrera izango da Tolosa nahiz Villabonako egoitzetan.

## MENDIA ▶

### Oargik irteera antolatu du asteburuan

Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du asteburu honetarako. Bihar aterako dira Tolosatik Tenako bailarara eta Pallas eta Pico Biscara igotzeko aukera izango da. Izen-ematea 637 830380an.

TOLOSA ▶ HIRIGINTZA

# «2015eko Tolosa» nolakoa izango den ikusteko aukera

Datorren 8-10 urteetan indarrean egongo litzatekeen Tolosa Hiri Ordenazioko Plan Orokorra aurkeztu zuten atzo

ESTI EZEIZA

2008-2015 bitarteko Tolosako Plan Orokorra aurkeztu zuten atzo Udaleko ordezkariak. Imanol Agirre arkitekturen esanetan, «plan hau lan sakon baten emaitza da eta helburu du Tolosaren etorkizuna hirigintza-ikuspuntutik ordenatzea 8-10 urtetarako». Plan honek adierazten duena da, Tolosa hiri bezala hemendik zortzi urtetara nolakoa izango den.

Orain arte indarrean egon den plana duela 16 urte inguru onartu zen, eta orain aurkeztu dena 8-10 urte bitartean garatuko litzatekeela azaldu zuen Jokin Azkue zinegotziak atzo. Plan honen baitan azaltzen dira zeintzuk izango diren Tolosako hirigintza, industria, komunikazio, ingurugiro... ezauzgarriak.

Duela bi hilabete, hau da, maiatzean egindako Osoko Bilkuran onartu zuten behin behinoko Tolosako hiri ordenazioko plan orokorra. Orain, egitasmen inguruko informazioa udaltxeko bigarren solairuan egongo da ikusgai irailaren 30era arte. Herritarrek beraien iritzia eman ahal izango dute epe honetan, eta dituzten zalantzak galdetu. Honetarako ordua eskatu eta teknikoekin ere hitz egin dezakete. Bestalde, Udaletxean dagoen erakusketan, modu ulerterraz eta grafikoan azaltzen dira proiektuak arautzen dituen gairik garrantzitsuenak. Lehenengo gelan bideo bat ikus daiteke, honetaz gain, gai hauek biltzen dituzten bederatzi panelak ere kontsul-



Udaleko ordezkariak Plan Orokorren aurkezpenean. E. EZEIZA

ta daitezke. Bertan zehazten dira: ekipamenduak, espazio libreak, komunikazioa, auzoak, Plan Orokorren helburuak, izapideak, jarduera ekonomikoak, aparkalekuak eta etxebizitza.

Behin erakusketak publikoan egoteko epea amaitzen denean, eta herritarren ekarpenak ikusita, urte honen amaieran behin behineko onarpena egingo dute Udaleko kideek. Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzara bidaliko dute, eta honek behin betiko onarpena ematen badiu, indarrean jarriko da Plan Orokor berria.

Bigarren gelan Plan Orokorren dokumentua kontsulta daiteke paperean edo ordenagailu bidez. Era berean, ekarpenak egin daitezke eskuragai dauden orriak bete eta kutxan sartuz. Bisitatzeko ordutegia,

goizez 08:00etatik 14:00etara, eta arratsaldez 17:00etatik, 19:00etara da.

## Zenbait aurreikuspen

Plan orokorrak arlo ezberdinetan egiten ditu aurreikuspenak. Etxegintzari dagokionean, orokorrean, 8-10 urte bitartean, 3.000 etxe gehiago egitea proposatzen da. Hauek hiriko eremu ezberdinetan nahiz auzoetan banatu dira. Hala ere, bi gune nagusi egongo dira, alde batetik, dagoeneko martxan den Voith-Gorostidiko eremuan, eta bestetik, San Esteban auzoan.

Hiriko bi sarrerak birgaitzeko plana ere aurreikusten dute proiektuan. Honen arabera, Olarrain ingurua eta eta Donostia etorbidea birgaituko dituzte.

TOLOSA ▶

## Laguntzak eskatzeko epea irekita dago

Tolosako Udal Kirol sailak jakitera eman duenez, kirol elkarteek diru laguntzak eskatzeko epea irekita dute dagoeneko. Honenbestez, interesa duten elkarteek hilaren 27a baino lehen egin beharko dute. Hau bideratzeko, Tolosako Udalera zuzendu daitezke eskatzaileak.

VILLABONA ▶

## Koadrila Eguneko bazkariko txartelak salgai

Santioetako jaien baitan, hilaren 27an ospatuko da Koadrila Eguna. Egund honetako bazkaria Etxeondoko zelaian izango da. Hala, bertan parte hartu nahi duenak Udal bulegoetan eman ahal izango du izena, hilaren 26a baino lehen.

VILLABONA ▶

## Hilaren 29ko krosean izen-ematea

Urtero bezala, Santio festetan, Zurbeltz elkarteak antolatuta krosa egingo dute hilaren 29an, herriko kaleetan zehar. Bertan parte hartu nahi duenak hilaren 20a baino lehen eman dezake izena, Villabonako Olaederra kiroldegian.

LEABURU ▶



Txotxongilo emanaldiko uneetako bat. HITZA

## Txotxongilo dantzan, Leaburun

Leaburu-txaramako Udalak ludoteka antolatu du uda honetako. Bertan gauzatutako ekintzen artean, txotxongilo emanaldia izan zuten. Aktore lanetan Irrintzi taldeko Joseba Ramirez aritu zen. Honek, haurren harreta bereganatzea lortu zuen, eta «gustura» egon ziren emanaldia ikusten. Herriko gaztetxoek gain, inguruko herrietakoak ere izan ziren, Gaztelu eta Belauntzakoak, hain zuzen ere.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

## ADUNA ▶

IV. Transernio  
Esku Pilota  
Txapelketa  
hasiko da bihar

40 bikote ariko dira guztira lehia, Tolosaldekoak zein kanpokoak

## ERREDAKZIOA

Adunako frontoian hasiko da bihar IV. Transernio Esku pilota Txapelketa. Ohi bezala, herriko festetan izango dira lehiaketaren finalak, abuztuaren 18an.

Kanporaketak ostiraletan, 19:00etan hasita, eta igandetan, 10:30ean hasita, izango dira. Guztira 40 bikote ariko dira lehia, Tolosaldekoak zein kanpokoak ere.

Pilotari gaztetxoak ariko dira lehia txapelketan, hau da, ondorengo mailakoak: benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak.

## ZUZENKETA ▶

▶ Atzoko HITZAn Amasa-Villabonako alkatearen izena gaizki atera zen. Bere izena Maixel Arrieta da.  
▶ Atzoko HITZAn Tolosaldeko AHT Gelditulu-aren izenean argitaratutako gutuna Mikel Ozaitak idatzi zuen.

## VILLABONA ▶ GIZARTEA

## Igandera arte 21 garagardo mota dastatzeko aukera

Gaur hasiko da, 18:00etan, Irrintzik antolatzen duen XI. Garagardo Azoka



Irrintzi elkarteko kideak Garagardo Azokaren kartelarekin. I. GARCIA

## IMANOL GARCIA

Gaur hasi eta igandera arte iraungo du Irrintzi elkarteak antolatzen duen Villabonako XI. Garagardo Azokak. 21 garagardo mota dastatzeko aukera izango dute festa hauen zale-tuek. 18:00etan hasiko da egunero eta 01:00ak aldera itxiko

dituzte atek. «Jendea azokaren zain egoten da», dio Agustín Laskurain Irrintziko kideak.

Villabonako Garagardo Azokak bere muga jo duela azaltzen du Laskurainek: «Azken urteetan mantentzen ari gara, beste azoka batzuk jaisten ari diren bitartean». Eskualdean azoka zaharrena delako eta ukondoak ondo prestatzearen fama dutelako omen dira horretarako arrazoi batzuk.

Garbi dagoena da Tolosaldean askorentzat uztailaren falta ezinezko hitzordua dela Villabonako Garagardo Azoka. Iazko datuek hala diote behintzat: 11.000 litro garagardo, 2.500 ukondo, 1.000 kilo salbitxa eta 4.000 pitxer. «Ea aurten ere zerbaki horiek lortzen ditugun», zehaztu du Laskurainek.

## Egun bakoitzak bere giroa

Buru-belarri dabilta Irrintziko kideak azoka guztia prestatzen. Gainera, aurten, barraren aurreko alde ere estalita jarri dute. 800 lagun inguru esertzeko lekua izaten da azokan eta egunero betetzen da. Muntaiak guztia bertan gelditzen da, aurki izango diren herriko festetako erabilgarria izateko.

Egun bakoitzak, baina, bere giroa izaten du. Gaur, osteguna izanik, herriko jendea joaten da batez ere. Hasieran helduak eta gero gazteak egoten dira. Ostiralean eta larunbatean gazte giroa nagusitzen da,

gauldeara batez ere. Igandean familiak joaten dira.

Irrintzi elkarteko kideak, senitartekoak eta lagunak aritzen dira lanean egun hauetan. Larunbatean 100 lagun edo izaten dira azokako zereginak betetzen. Lortzen duten dirua, «aurrena, iaz antolatu genituen ekitaldien gastuak ordaintzeko erabiliko dugun», dio Laskurainek, «eta gero aurten antolatu nahi ditugunentzako».

Txirindularitzari lotuta dagoen elkarte da Irrintzi. Eta, urtero, garagardo azokak Tourrarekin bat egiten du. Horregatik, eguneko etapa bukatu ondoren joaten dira elkarteko kideak azoka zabaltzera.

## Larunbatean, kontzertua

Aurten ere kontzertua izango da etzi, larunbatean, orain bi urte bezala. Lauroba talde donostiarrak joko du. Hain zuzen, Egun hori gehiago girotzeko asmoarekin antolatu dute.

Ohi denez, pitxerra erostera-koan, txartel bat jasoko du bezeroak. Igandean, 21:30ak aldera, Tenerifera (Espainia) bi pertsonentzako aste beterako bidaia zozketatuko dute.

Dena prest dago, beraz, kaineroetatik ateratzen den garagardo dastatzeko. Grimbergen Dubbel eta Blond izaten dira eskaera handiena izaten dutenak, baina beste 19 garagardo mota ere badaude egarria asetzeko.

## GARAGARDOAK ▶

Guztira 21 garagardo mota dastatzeko aukera izango da.

**Maes.** Pilsen tankerakoa. Horia.

**Grimbergen (Dubbel).** Abadiakoa. Tostatua eta fermentazio bikoitza.

**Grimbergen (Blond).** Abadiako garagardo horia.

**Grimbergen (Cuvee l'ermitege).** Garagardoekin kabiarrak. Fermentazio handikoa. Botilan.

**Mort Subite.** Lambic garagardo. Fermentazio basatia.

**Brugs.** Zuria, gari kandealez egina.

**Calsberg.** Premium garagardo, horia, malta eta lupuluekin egina.

**Kronenbourg 1664.** Tradizio eta nazioartean ospa handia duena.

**Judas.** Graduazio altuko garagardo. Lodia eta kolore indartsukoa. Botilan.

**Pagoa Ohri.** Euskal tankerako pilsner tipikoa. Usain eta zapore biziarekin.

**Pagoa Gorri.** Red ale tipikoa lupulu zaporearekin.

**Pagoa Zunbeltz.** Stout klasikoa. Usaintsua, gozoa, garbia, lehorra eta gazi-gozo ikutuarekin. Botilan.

**Foster's.** Benetako garagardo hori australiarra. Sendoa baina edateko erraza.

**Beamish.** Garagardo beltza. Sendotasun eta kalitate handikoa.

**San Miguel.** Pilsner tankerakoa. Urre-kolore argia du.

**San Miguel Nostrum.** Aparteko garagardo berezia. Kolore anbar argitsua.

**San Miguel 0,0%.** Alkoholik gabekoa. Pilsen baten betiko garagardo izatera zintzoki betetzen du.

**John Smith's.** Erresuma Batuko bitter garagardo ospetsuena.

**Miller.** Osagai hoberekin egina. Hotzean filtratzen da eta horrek zapore arina ematen dio.

**Mahou 5 estrellas.** Lager garagardo. Zapore arina.  
**New Castle Brown Ale.** Tostatua, oso erraza edatekoa.

EUSKAL JAIA  
Billabona

Uztailak  
**28**  
Larunbata

Billabonako  
Plazan

“SALTO ETA JAUI, EUSKARAZ BIZI!”

**18:00etan** Sagardo dastaketa pintxoan laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak alaiturik

**19:30etan** BERTSOLARIAK: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso

**20:00etan** ERROMERIA:

Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak

**21:00etan** Afari herrikoia plazan:

**00:00etan** ERROMERIA: Patxi eta Konpania

**Zikiro Jana**

Garaiako euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaituztegu

Zikiro janerako txartelak salgai: 20€



MENDI IBILALDIK (II) ▶

# Trikuharriak ala ibilaldi berdea, biak aukeran

Altzo inguruan Lizartza aldera joaz Otsabion aztarnak aurki daitezke; Bidegoian aldean, berriz, Erniorako bidea



Otsabio mendian trikuharri bat dago. Lizartzatik mendiak honako itxura dauka. ASIER IMAZ



Bidaniko plazan dagoen bidea hartu behar da: handik gora jarraituz, ez dago galtzeko arriskurik. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

**A**ukeraturako bi ibilbide hauek zailtasun apur bat daukate aurreko bi ibilbideekin alderatuz gero. Baina, hala ere, egiteko ez da sasoi handirik behar. Lehena, Altzotik Lizartzako mendietara jotzeko ibilbidea da: Altzomendi. Bigarrena, berriz, Bidegoiandik Berazegarara.

Lizarribar eta Elordi baserrien artean hasi behar da ibilbidea. Gereizeaga parketik eta Goikoetxe baserritik igaro behar da ondoren. Harrobiko ibilbidea hartua da orduan; aldi berean, GR-121 errepidea egiten ariko gara, baina bira egin behar da orduan Legasako errepidea ezagutzen dena hartzeko. Bide honetan pagadi eder bat ikus daiteke, eta baita artadiak ere.

Bidezidor honek Azkarateko bidera garamatza berriz ere, eta bide berdinetik itzultzen da Altzora. Globo forma duen ibilbidea da Altzomendi, eta 11 kilometro eta erdi ingurukoa da.

Zitzaola inguruan eskuinera joan beharrean, ezkerrean joanez gero, Laparmendi dugu, 812 metrora dagoen mendixka, hain zuzen. Handik bertatik oso hurbil Pagoaundiko tumuluak eta Otsabioko trikuharria daude.

## Bidegoiandik Berazegarara

Plazatik gora egingo dugu eskola zaharra zenera iritsi arte. Metro batzuk aurrerago goraka doan bidezidor bat hartuko dugu. Pista zabala aukeraturiko dugu pagadi batera iristeko. Pagadi hori zeharkatu ondoren

## IBILBIDEAK ▶

### ALTZOMENDIKOA

**Distantsia.** 11,6 kilometro.

**Iraupena.** 2 ordu eta 45 minutu.

**Gorabeherak.** 350 metro.

**Zailtasuna.** Ertainekoa.

### BIDEGOINGOIA

**Distantsia.** 7,4 kilometro.

**Iraupena.** Bi ordu inguru.



**Gorabeherak.** 242 metro.

**Zailtasuna.** Ertainekoa.

Labardain baserria ikusten da aurrean. Baserritik, ezkerrean hartu behar da. Labardain Salletxe baserriaren parean eskuinetara hartu eta zelaia zeharkatuz baso batean barneratuko gara.

Ondoren, datorren bidegurutzean ezkerrean jo behar da. Berazegar baserriera iritsi aurretik *denabatera* bidea hartuz, ezkerretara desbideratu behar da. Pista hori utzi eta errekaraino jaitsiz bide nagusiari ekin behar zaio muino batera iritsi arte, hor eskuinetara dagoen bigarren bidea hartuz.

Hurrengo bidegurutzean ezkerretara egin eta errekaraino batera jaitsi behar da. Ondorengo bidegurutzean eskuinera egin behar da. Bordaren aurrean ezkerreko bide zaharra ikusten da; hortik jarraituz Betelu Goena baserriera iritsi daiteke. Zementuzko pistatik eginez Betelu Barrenara iritsiko gara. Ernio errekaraino jarraitu, zubia zeharkatu eta mendi oinetaraino joanez, mendiaren oinetan zehar eta errepideari paraleloan herriko plazan bukatzen da bide hau.



Altzoko eta Bidegoiango gorabeheren grafikoak. HITZA

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Jatetxea  
Bataioak, Jaunartzeak...

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

MARIANO LAZKANO ▶ BELAUNTZAKO ALKATEA

## «Herrikoak garenon artean giroa nahiko lasaia ikusten dut»

Mariano Lazkano, alkateak, herriaren behar nagusien artean herriko ura eta etxebizitzak kokatu ditu



A. IMAZ

ASIER IMAZ

Mariano Lazkano (Belauntza, 1951) Belauntzako alkatea eta Denok Bat Hautesle Elkarteko zerrendaburua da. Hauteskunderen ondoren, Lagun Artean Hautesle Elkartearekin osatu du Udala.

**Bi hautesle elkarte elkartu zarete orain dela lau urte beza-la?**

Bi talderen artean adostasun batera iritsi ginen eta orain arteko lau urtetan bezala jarraituko dugu, herriaren nahiri begiratu eta erantzuteko asmoz.

**Zerrenda bozkatuena herrian berriz EAE-ANV izan da.**

Bai, baina udaletxea osatzeko modurik egokiena hau dela iruditu zaigu. Hau ez da izan inori ezer kentzeko edo emateko, udaletxera begira hartutako erabakia izan da. Nik behintzat EAE-ANVrekin ez dut arazorik, gainera oso ongi jokatu dutela nirekin gaineratu beharra daukat. Beraiekin bildu gara eta berriz ere biltzeko eskuak zabaldu gaude.

**Zein behar ditu herri honek?**

Herri honetan dagoen lehenbiziko arazo nagusia urarena da. Aurreko legealdia baino lehenago, partzuergoarekin harremanetan hasi ziren. Ur depositu berria egin zuten hauek Udalaren baimenakin. Herriak nahiko balu, ur sare guztia partzuergoari emango litzaioke.

Ubideak orain dela 40 edo 60 urte jarritakoak dira, zaharkituak ditugu beraz. Hori dena berritu eta txukundu beharra dago.

**Gipuzkoako Urak-en esku?**

Bai, partzuergo deitzen diote horri. Oraindik eskumena erabat eman gabe dago. Elkartu eta horrela erabakiko balitz, partzuergoari emango zaio uraren kudeaketa.

**Zein da partzuergoaren inguruan Udalaren jarrera?**

Hemen badago arazoa bat, aguazilaren inguruan. Uraren kontua berak eraman du, eza gutza handiarekin. Edozein ordutan deitu eta arazoa jarraian konpontzen zuen. Dena oso ongi zekien, kloroaren kontua, bonbak, iragabideak non zeuden etabar Baina Alegiara joan da eta gabe geratu gara. Horrelako pertsona bat berriz lortzea zaila izango da. Partzuergoak berriz konponketa eta horrelako gauzarako presaturiko jendea du. Aguazilaren arazoa dela etabar gu partzuergoaren esku uztearen aldekoak gara. Baina elkartu eta gehiengoan hitza errespetatu behar da horretarako.

**Etxebizitzaren beharra ere hor dago.**

Bai. Urarena lehen arazoa bada, bigarrena etxebizitzena da. Mementu honetan ezin da Belauntzako etxebizitzik eraiki, arauak ez baitaude eginak. Baina azken urteetan horretan

gabiltza. Teknikari batzuei esan zitzaizkien zein lurretan joan zitezkeen edo aztertzeke eta arauen aldaketan gabiltza orain. Hala eta guztiz ere zein motatako etxeak-eta jakiteko, herritarrekin elkartuko gara, gazteek zer nahi duten jakiteko. Oraindik hasierako fasean gabiltza hala eta guztiz ere.

**Azken urteetan Belauntzako herri giroak zeresana eman du, nola aurkitzen da gaur egun?**

Ustez orain nahiko ondo dago. Beste taldeekin hitz egiten ari-tu naiz, bi edo hiru aldiz elkartu gara. Nire aldetik behintzat, ez zait iruditzen arazorik dagoenik. Beti ere herri barruaz ari naiz. Herrikoak garenon artean giroa nahiko lasaia ikusten dut. Hemen jaio eta bizi garenok aspaldiko urteetan falta hori sentintu dugu. Beste ikuspegi edo kultura bat du kanpotik etorri den jendeak Belauntzari buruz. Oso ezberdin pentsatzen dute, eta hitz egiten jarri ezkeror, orduerdirako konturatzeko zara kanpotik etorri den jendeak Belauntza ez duela sakonki ezagutzen. Gu garen bezalakoak gara, baina gu gara hemengoak, bizia eman dugu hemen eta gure kultura daukagu bertan. Agian 15 edo 40 urtetara aldatuko egingo da, gauza guztiak aldatzen diren bezalaxe. Baina ez dago etorri eta hurrengo egunerako dena aldatzerik.

IBARRA ▶ POLITIKA

## Bihar Udal Bilkura egingo dute udaletxean

Legealdi honetarako batzordeak erabakiko dira zazpi puntuko gai zerrendaren barnean

A. IMAZ

Chelo Romeo Ibarra Alkateak, Udalbatza Osoaren Ezohiko Bilkurarako deialdia zabaldu du. Aipatu Batzarra Ibarra Udal Aretoan egingo dute, bihar

09:00etan, hurrengo lau urteetan herriaren etorkizuneari eragina izango duten erabakia hartuko dituzte. Besteak beste, Udaleko batzordeak banatuko dira. Azken legealdian Chelo Romeo izan da batzorde gehien arduraduna, besteak beste, Hirigintza, Kultura, Kirola eta Euskera. Hauteskunderen ostean EAJtako Alkatez bere botuekin bakarrik lortu ostean, bihar argituko da Ibarra Udala aurrera eramateko zein alderdi izango dituen ondoan eta aurreko legealdian zeresana eman zuen Hirigintza Batzordea noren esku geratuko den.

### GAI ZERRENDA ▶

Bihar Udal Aretoan aztertuko diren gaiak hauek izango dira:

- ▶ 2007ko ekainaren 16ko ezohiko bilkuren akta onartzea.
- ▶ Bilkuren maiztasuna zehaztea.
- ▶ Batzorde berriemateko Iraunkorren sorkuntza eta osaketa.
- ▶ Kide anitzeko Organoetan egongo diren udal ordezkarien izendapena.
- ▶ Gobernu Batzordearen eraketa.
- ▶ Alkateordeei, Gobernu Batzordeko kideei eta emandako Ordezkapenei buruzko Alkate ebazpenaren berri ematea.
- ▶ Alkatearen liberalizazioa eta udal kideen ordainsari araubidea.

IBARRA ▶ ANTZERKIA



## 'Interruptour' Gaztetxean

A. IMAZ

Igande honetan, hilaren 22an, Interruptour antzerki taldeak *Interruptour* antzezlan eskainiko du Ibarrako Gaztetxean, 19:30etik aurrera. Ena-

naldi honetan bizitzari buruzko errepasoa egiten du kitar-jole batek, bere historia pertsonala kontatzen duen bitartean. Hori guztia, gainera, abesti ezberdinez lagundurik egingo du.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Erraldoi tailerrean lau erraldoi egiten ari dira festetarako

Martxel Intxausti, Marko Hernandorena, Gaizka Leitza eta Jone Iparragirrek Umeen Egunean hauekin dantzatu dute



Jon Iparragirre eta Martxel Intxausti, atzo, erraldoien tailerrean. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Aste honetan zehar erraldoien tailerra egiten ari dira herriko lau mutil. Erraldoiak amaitu ondoren, hauekin dantzatzen ikasiko dute, festetako Umeen Egunean atera ahal izateko. Tailerra aurten lehenengoz egiten da.

Miren Fagoaga tailerraren arduraduna da. «Erraldoiak dantzatzeko gero eta jende gutxiago dago. Txikitatik hasiz gero, talde bat sortzea pentsatu zuten. Horretarako lehenengo erraldoiak beraiek egiteko dituzte eta gero dantzatzen ikasiko dute». Helburu horrekin lau mutilek izena eman dute. «Horrelako gauza bat egiteko denbora asko behar da eta jende asko dena mugitzeko. Arduradun bezala bakarrik nagonez, 6 topea izango litzateke. Lau umerekin, beraz, ongi lan egiteko dezakegu», dio Fagoagak.

Ikastaroarekin astelehenean hasi ziren eta helburua aste honetan bukatzea da. «Hartara, hurrengo astean dantzatzen ikasten hasiko dira». Erraldoi tailerrean pentsatu zutenean, erraldoiak egitea «aitzakia» bat bezala zela azaldu du Fago-

agak, gero dantzatzen ikasteko eta festetan ateratzeko. «Hasieran garrantzia gutxiago eman genion erraldoiak egiteari eta dantzatzen ikastea erakargarriagoa egingo zitzaieela uste genuen, baina erraldoiak egiten ere oso gustura daude». Aurrera begira, aukera gehiago ikusten dituzte. «Orain bakarrik festetan ateratzen dira erraldoiak, baina talde txiki bat izanez gero, beste jaietan ere atera daitezke: Inauterietan, Eguberrietan...».

## Eskulana

Aste honetan burua egiten hasi dira kartoiarekin. Papera eta kolarekin forma gehiago eman diote. Buruei dagokienez azkeneko pausua hauek margotzea izanen da. «Gaur egitura egiten dugu. Gorputza gerriraino aparrarekin egin nahi dugu, baita besoak ere. Gero arropa faltako litzateke. Orain maindire zaharrak tindatzen ari gara Okilleko garbigailuan».

Egiturak oraingo, bururik gabe, 2,40 metro ditu. «Niri handi xamarra iruditzen zait, baina beraiei gustatzen zaie,

eta orduan ahal bada horrela egiten saiatuko gara, dantzatzeko orduan eroso sentitzen badira, behintzat».

## Lau erraldoi, lau errege

Jon Iparragirre, Martxel Intxausti, Marko Hernandorena eta Gaizka Leitza dira tailer honetan izena eman dutenak. Laurek, beraz, erraldoiak egin ondoren hauekin dantzatzen ikasiko dute. Gaizka Leitza erraldoia egiten gustura dabil. «Erraldoia egiteak, horrek egiten dit ilusio gehien». Marko Hernandorenak, aldiz, nahia- go duela dantzatu azaldu du. «Aukeran dantza nahiago dut».

Egiten ari diren 4 erraldoietatik, bi gizonezkoak dira, eta beste biak, emakumezkoak. Markok adierazi duen bezala, bakoitza kolore batez jantziko dute ongi ezberdindu daitezten. Errege-erreginak dira irudikatzen aukeratu dituzten pertsonaiak, eta pixkanaka-pixkanaka, hauek atontzen joango dira.

Dantza prestatzeko orduan, helduekin entseutuko dutela adierazi du Fagoagak. «Haiek erakutsiko diete txikiei».

LEITZA ▶ AISIA



## Egia-Leitza Gazte Topaketa

N. Garzia ▶ Atzo Egia eta Leitzako Gazte Topaketa egin zuten Leitzan, Egiako Aisialdi Taldea Leitzan dagoela aprobetxatuz. 11:30ean malabare tailerra egin zuten, 13:30ean bazkaria, 17:00etan rapela trenbideko harkaitzetan eta 20:00etan, Ateka-beltzen luntxa. Egiako Aisialdi Taldea Berastegitik abiatu zen astelehenean eta Leitzan hiru gau egingen dituzte. Orotara 23 gazte eta 5 hezitzaile dira eta 15 egunetan zehar ondorengo herriak zeharkatuko dituzte, oinez: Berastegi, Leitza, Betelu, Errazkin, Iribas eta Lekunberri. Uztailearen 29an itzuliko dira Egiara. n.g.

LEITZA ▶ KIROLAK

## Mikel Nieve Elgetako Criterium-an, lehenengo

Leitzarrak larunbatean bigarren postua eskuratu zuen eta igandean, lehenengo

N. GARZIA

Asteburuan Elgetan ospatu den Euskadiko Mendiko Criterium proba irabazi du Mikel Nieve txirrindulari leitzarrak. Criteriumak bi egunetako iraupena izan ohi du. Larunbatean Nieve bigarrenengo gelditu zen, eta igandean, lehenengo.

Orain udan Nievek adierazi duenez, astebururo lasterketak izaten ditu. Azkenaurre-

koa Bizkaiko itzulia izan da eta hemen seigarren postua eskuratu du leitzarrak. 130 txirrindulari inguru lehiatu dira bira honetan. «Nire helburua lehenengo 10 postuetan gelditzea zen». Mikel Nivek iraila erdian beste itzuli garrantzitsu bat izanen du, Goierriko itzulia, baina bitartean, herrietako festetako itzulietan ibiliko da.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zaintzailea.** Tolosan, ebeko lanak egin eta bi urte zaintzeko emakume euskalduna behar da, goizez. Irailean hasteko. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: [677 45 25 97](tel:677452597).

### GALDUTAKOAK

**Zakurrak.** Bi setter ingeles galdu zaizkit Irurako mendia inguruan. [659 96 12 13](tel:659961213).

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Nora joan zara edo nora joateko asmoa duzu uda honetan? Sartu gure webgunean eta idatzi zure bidaia edo asmoen inguruan. Horretaz gain, gure webgunean beste hainbat bidaien berri izango duzu Eztabaida atalean.



**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Ereite elkarte kulturantzak antolatuta, irteera egingo dute igande honetan, hilaren 22an, Nafarroako Ikaburu kobazuloetara. Izen-ematea ostirala baino lehen egin daiteke 678 638 394 telefono zenbakian. Irteera 10:30ean izango da Santa Klaratik. Buelta, berriz, 18:30a aldera egingo dute.  
**Tolosaldea.** Tolosa, Berastegi, Elduain eta Berrobiko urteroko erromesaldia Arantzazura hilaren 31n izango da. Autobuserako eta bazkarirako txartelak salgai daude, Tolosako San Frantzisko komentuko porterian.  
**Villabona.** Gaurtik aurrera Garagardo Azoka izango da Villabonan, Txermin auzoan. 21 garagardo mota, euskal eta Alemaniako musika. 18:00etatik 01:00etara irekita, ostiralean, berriz, eta larunbatean 02:00etaraino.  
**Villabona.** Hilaren 29an 10:30ean, jaietan, egingo den kroserako izen-ematea zabalik da Olaederra kiroldegian 10:00etatik 14:00etara edo egun berean Zumbeltz elkartearen, Benjaminetatik helduetara.  
**Villabona.** Euskal Jaia hilaren 28an; sagardo dastaketa, erromeria 18:00etan eta zikiro jatea 21:00etan, Zikiro jaterako sarrerak salgai daude 20 eurotan herriko hainbat tabernatan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Irurtzun. Mutiolo, A. San Martin, 5. 112.  
 Tolosa. Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 673649.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Irauli uhinak.  
 21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Santamañak herri giroan

**ASTEASU ▶** Santamaña festen egun nagusia izan zen atzokoa: txupinazoa, Tranzazuloren igoera, meza nagusia, hamaiketakoa, herri kirolak...



Trontzalariek ikuskizun ederra eman zuten. i.e.



Txupinazoarekin batera igo zen Tranzazulo. i.e.



Elkartea beteta, hamaiketakoaren orduan. i.e.



Aizkolarietako bat esfortzu bizian. i.e.

IMANOL GARCIA

**S**antamaña festei hasiera ofiziala eman zieten atzo Asteasu izen bereko ermitan. Lainopean esnatu zen baselizaren ingurua, baina Tranzazuloren igoerarako lainoak desagertu ziren. Txupinazoa bota eta gero, meza nagusia egin zuten. Garoarekin ederki apaindu zuten baselizaren zorua.

Jende ugari joan zen Santamañara. Goizean zehar pixkanaka heldu zen, batez ere jende edadetu. Mezaren ondoren hamaiketakoa egiten ehun bat lagun izango ziren, elkartearen barruan eta kanpoan, eta baita baselizaren barruan ere.

Animazio handiena herritarren arteko herri kirolek jarri zuten. Bi talde egin zituzten eta lehia bizian aritu ziren trontzan, lokotx biltzen, harri jasotzen, txingetan, eta aizkoran. Hain justu, aizkolarien saioak eman zuten ikuskizun handiena, tarte luzeana beraiek hartzen baitzuten lana egiteko. Azken txanpara parekatuta iritsi ziren eta kolpe batek erabaki zuten lagunarteko lehia. Bertsolariak eta Kupela taldeak eman zioten festari jarraipena.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 73 urte betetzear eta Hiru Erregeen Mahaian. Hau da marka, Joxe! Zure kordadak lagunien partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAREN egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAREN egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

## hitza agurren tartea

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**